

Buletineko gaiak:

- | | | |
|---------------------------|-------------------------------|-------------------|
| 1. Zuzendaritzaren oharra | 3. Xanistebanak eta Madalenak | • Etapako berriak |
| 2. 2018/19ko tutoreak | 4. Erreziboak | • Eranskinak |

Berri orokorrak

1.- Zuzendaritzaren oharra

Ikasturte honetako azken buletina duzue eskuartean **eta paperean jasoko duzuen azkena ere bai**. Dakizuen bezala, ikastolako komunikazioak teknologia berrietara egokitzen hasi gara ikasturte honetan eta hurrengo ikasturtean ezarpenarekin jarraituko dugu. ALEXIA izango duzue buletinak eta ikastolako oharrak jasotzeko bidea, eta mesedez, iraila bitarte ALEXIA-ko erabiltzailearen alta egitea eskatzen dizuegu. Aurrekoetan adierazi bezala, horretan laguntzeko daukazue Haurtzaroko webgunean bideo tutorialak eta edozein zalantzaren aurrean gurekin harremanetan jartzeko dudarik ez izan.

Besterik gabe,

opor garai lasai eta zoriontsua pasa dezazuen desiratzen dizuegu.

Uda ona izan dezazuela!

Gogoratu:

- HH, LH eta DBHko ikasle guztiek irailaren 10ean hasiko dutela ikasturte berria.
- Goizeko zaintza zerbitzua ere 10ean hasiko da **7:30etatik 9:00etara**
- ORDUTEGIA honakoa izango da:
 - ✓ **HHn goizeko 9:00etan (sarrerako ordutegia malgua izango da)**
 - ✓ **LHn goizeko 8:30ean.**
 - ✓ **DBHn 11:00etan lehen egunean eta 8:00etan gainontzekoetan.**

OHARRA: Idazkaritza uztailaren 20a arte goizez irekia egongo da.

2.- 2018/19 ikasturteko tutoreak

Uztailan jasoko duzue honi dagokion informazioa posta arruntez eta **Alexia** bidez.



3.- Xanistebanetako eta Madalenetako txosnen txandak

Izen emateak jaso ditugu eta zuek aukeratutako egun eta txandan joan behar duzue lanera. Zain izango gara!

Oharra: Xanistebanetako abuztuaren 5eko bigarren txanda ez da bete. Izena eman nahi duenik baldin bada deitu dezala Ikastolara 943 491659 telefonora edo izena eman dezake webgunean, **buletinak/izena emateko inprimakiak** atalean.

Eskerrik asko Madalenetako eta Xanistebanetako txosnan lana egiteko izena eman duzuen guztioi!

4.- Ikastolako erreziboak

Ekaineko erreziboan ondorengo gehigarria kobratuko zaizue:

- HH 1eko ikasleei, Gurutzerara egindako irteera
- HH 2 eta 3ko ikasleei, zinemara egindako irteera
- HH 3ko ikasleei, Pagoetara eta Arraztalora egindako irteerak
- LH 1.mailako ikasleei, Oiasso museora eta Kristina eneara egindako irteerak
- LH 5.mailako ikasleei, Urdaburura egindako irteera
- LH 6.mailako ikasleei, Arditurrira egindako irteera
- DBH 1.mailako ikasleei, hondartzara egindako irteera
- HH3 eta DBH3 bitarteko ikasleei ikasturte bukaerako egonaldiaren 2. zatia

Gogoratu:

- Uztailan eta abuztuan IKT bazkide kuota kobratuko zaizuela, familiako kuota bat.

Lehen Hezkuntzako berriak

1.- LH6: Xanistebanetako tabernaren muntaia eta desmuntaia

Xanistebanetako tabernaren muntaia eta desmuntaiaren txandak osatu dira eta izena emandako egunean zuen zain izango gara.

Buletinaz aparteko eranskinak

- Abaraxka Ludotekaren oharra, Bizipoza (HH1-DBH4)

